# BIDE BERDEAK
# VÍAS VERDES



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

eu es

VÍAS VERDES

## Sarrera
## INTRODUCCIÓN

### ZER DIRA BIDE BERDEAK?

Erabiltzen ez diren trenbide-trazadura zaharrak dira, oinez eta bizikletaz egiteko ibilbide motorizatu gabe gisa berrerabiltzen direnak.
Bide Berdeen diseinuak trenbide-trazaduren abantailak aprobetxatzen ditu, horien ibilbidean erraztasun- eta erosotasun-maila handia eskainiz eta pertsona guztientzako irisgarritasuna bermatuz, mugikortasun murritza duten pertsonentzat ere egokiak izanik.

### BIDE BERDEAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Duela hamarkada batzuk, Euskal Autonomia Erkidegoak iberiar penintsula osoko bide estuko trenbide-sare zabalenetako bat zeukan bere lurralde aldapatsuan. Lurraldearen orografia zailak eragin zuen, neurri handi batean, lurrari lotuta zegoen eta herrietara eta sortzen ari ziren fabriketara hurbiltzen zen sare baten hazkundea, Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen sozioekonomikoa bultzatuz.
Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoak 9 Bide Berde eta 180 km. baino gehiago egokitzea lortu du, eta horien bitartez erabiltzaileak lurralde eder honen historia, kultura eta natura ezagutu ditzake.

### *¿QUÉ SON LAS VÍAS VERDES?*

*Son antiguos trazados de ferrocarril en desuso reutilizados como itinerarios no motorizados para ser recorridos a pie y en bicicleta.*
*El diseño de las Vías Verdes aprovecha las ventajas de los trazados ferroviarios sobre los que discurren ofreciendo un máximo grado de facilidad y comodidad en su recorrido, garantizando la accesibilidad universal, incluyendo a personas con movilidad reducida.*

### *VÍAS VERDES EN EUSKADI*

*Hace décadas, el País Vasco acogió en su abrupto territorio una de las más densas redes ferroviarias de vía estrecha de toda la península ibérica. La difícil orografía de este territorio fue la que, en buena medida, propició el crecimiento de una red que se pegaba al terreno y se acercaba a pueblos y a las florecientes fábricas, impulsando el desarrollo socioeconómico del País Vasco.*
*En la actualidad, Euskadi ha conseguido acondicionar 9 Vías Verdes y más de 180 km. a través de los cuales el usuario puede conocer la historia, cultura y naturaleza de este bello territorio.*

www.euskaditurismo.eus



## *FC Vasco-Navarro*
VASCO NAVARRO ZERITZONAREN BIDE BERDEA



85 Km.

### LOKALIZAZIOA LOCALIZACIÓN

Arlabaneko mendatearen (Araba-Gipuzkoa mugan) eta Estellaren (Nafarroa) artean.
*Entre el puerto de Arlabán (límite Álava-Gipuzkoa) y Estella (Navarra).*

| | |
|---|---|
| ZORU-MOTA<br>TIPO DE FIRME | Asfaltoa - Lur trinkotua<br>Asfalto - Tierra Compactada |
| I. TARTEA<br>TRAMO | ARLABAN MENDATEA > VITORIA-GASTEIZ<br>PTO. ARLABÁN > VITORIA-GASTEIZ |
| II. TARTEA<br>TRAMO | VITORIA-GASTEIZ > ESTIBALIZ > LAMINORIA TUNELA<br>VITORIA-GASTEIZ > ESTIBALIZ > TÚNEL DE LAMINORIA |
| III. TARTEA<br>TRAMO | SANTO TORIBIO ERMITA > MURIETA*<br>ERMITA DE SANTO TORIBIO > MURIETA* |

*Lizarraraino iristearen posibilitatea / *Posibilidad de llegar hasta Estella*

### Estatuko trenbiderik garrantzitsuenetakoa zenaren trazadurari jarraitu

Ferrocarril Vasco Navarro deitutakoaren Bide Berdea, Arlabango mendatetik (Araba eta Gipuzkoako probintzien muga) Done Jakue Bideko Lizarrako udalerrira arteko ibilbide luze eta erakargarria da. Arabako probintzia osoa gurutzatzen du iparretik hego-ekialdera eta Arabako Lautadan eta mendialdean barrena sartzen da Lizarralderaino. Espainia osoko bide luzeenetakoa da.

Ibilbidea hainbat tartetan banatuta dago, oso luzea delako, eta Gasteizen barrena igarotzen da eta Laminoriako tunel luze eta igaroezina da bere ezaugarrietako bat.

Antoñanako udalerrian Bide Berdearen Interpretazio Zentroa bisitatu behar da, trenbide zaharraren historian barrena egindako ibilbidea eskaintzen baitu.

### Sigue el trazado del que fuera uno de los ferrocarriles más importantes del Estado

*La Vía Verde del Ferrocarril Vasco Navarro es una larga y atractiva ruta entre el puerto de Arlabán (límite de las provincias de Araba-Álava y Gipuzkoa) y la localidad jacobea de Estella. Cruza de norte a sureste toda la provincia de Álava y se adentra por la Llanada y la Montaña Alavesa hasta Tierra Estella. Está considerada como una de las más largas de toda España.*

*El recorrido está dividido en diferentes tramos, dada la longitud de la ruta, el paso por la ciudad de Vitoria-Gasteiz y la existencia del largo e intransitable túnel de Laminoria marcan su discurrir.*

*En la localidad de Antoñana no se puede dejar de visitar el interesante Centro de Interpretación de la Vía Verde, que nos ofrece un recorrido por la historia de este antiguo ferrocarril.*

### LEKU INTERESGARRIAK LUGARES DE INTERÉS

- Estibaliz Santutegia / *Santuario de Nuestra Señora de Estíbaliz*
- Antoñanako Monumentu-multzoa / *Conjunto Monumental de Antoñana*
- Izki Parke Naturala / *Parque Natural de Izki*

...

## *Montes del Hierro/Itsaslur*
BURDIN MENDIEN BIDE BERDEA/ITSALUR



42 Km.

### LOKALIZAZIOA LOCALIZACIÓN

Traslaviña (Artzentales) - Kobaron (Muskiz) Bizkaia.
*Traslaviña (Artzentales) - Kobaron (Muskiz) Bizkaia.*

| | |
|---|---|
| ZORU-MOTA<br>TIPO DE FIRME | Asfaltoa - Lur trinkotua<br>Asfalto - Tierra Compactada |
| I. TARTEA<br>TRAMO | TRASLAVIÑA > GALLARTA<br>TRASLAVIÑA > GALLARTA |
| II. TARTEA<br>TRAMO | GALLARTA > ITSASLUR BIDE BERDEA (Lotura - Bidegorri)<br>GALLARTA > VÍA VERDE DE ITSASLUR (Enlace - Bicicarril) |
| III. TARTEA<br>TRAMO | ITSASLUR BIDE BERDEA<br>VÍA VERDE DE ITSASLUR |

### Bizkaiaren meatze-iragana

XXI. mendeko Bilbo handi eta kosmopolitaren sustraiak ezagutu nahi dituztenentzat Burdinazko Mendien Bide berdea bisitatzea ezinbestekoa da, hiri hau aspaldidanik berezi bihurtu duten burdina-arterietan barrena egiten den paseo bat baita. Bide Berde hau Bizkaiko luzeena da. Natura-balio handia duen ibilbidea da, 42 kilometro igarotzen dituena balio handiko guneetan barrena, adibidez Trianoko Mendien Biotopo Babestua eta Areatzako Hondartza Barbadun itsasadarrean (Natura 2000 Sarea). Gainera meatze-aztarna ikusgarriez beteta dago (kargatzeko tokiak, burdinolak, meategiak, kaltzinazio-labeak eta abar), eta horiek guztiek oso ibilbide berezia bihurtzen dute. Jende guztiak ibilbide hori erosotasunez goza dezan, turismo aktiboko bi gune inauguratu dira. Lehenengoa ibilbidearen hasieran dago, Traslaviñan, eta informaziorako eta bizikletak alokatzeko zerbitzua eskaintzen du, baita atseden hartzeko eta freskatzeko edo lurralde honetako produkturik onenak dastatzeko aukera ere. Bigarrena Atxuriagako atseden-arean dago kokatuta, eta zerbitzu horiek guztiak eskaintzeaz gain, igandero emozio berriak probatzeko aukera ematen digu, beti jarduera desberdinekin, adibidez arku-tiroa, rokodromoa eta abar.

### El pasado minero de Bizkaia

*Para quienes quieran conocer las raíces del gran Bilbao cosmopolita del siglo XXI, la visita a la Vía Verde de Montes de Hierro se antoja imprescindible, ya que es un paseo por las arterias ferrosas que desde antaño ha distinguido esta ciudad. Esta Vía Verde se consolida como la más larga de Bizkaia. Un itinerario de gran valor natural que recorre así 42 kilómetros por enclaves tan valiosos como el Biotopo Protegido de los Montes de Triano y la playa de la Arena en plena ría del Barbadun (Red Natura 2000). Además está salpicada de los espectaculares vestigios mineros (cargaderos, ferrerías, minas, hornos de calcinación...) que la convierten en un recorrido singular. Para que todo el mundo pueda disfrutar cómodamente de este trazado, se han inaugurado dos puntos de turismo activo. El primero de ellos lo encontramos al inicio de la ruta en Traslaviña y nos ofrece un servicio de información y alquiler de bicicletas, así como la posibilidad de sentarse a descansar y refrescarnos o saborear una muestra de los mejores productos de esta tierra. El segundo se ubica junto al área recreativa de la Aceña, y además de ofrecer todos estos servicios, nos invita cada domingo a probar nuevas emociones, con actividades siempre distintas, como tiro con arco, rocódromo, etc.*

### LEKU INTERESGARRIAK LUGARES DE INTERÉS

- El Pobaleko Burdinola / *Ferrería El Pobal*
- Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa/ *Museo de la Minería del País Vasco*
- Muñatones Gaztelua / *Castillo de Muñatones*

...

## *Bidasoa*
BIDASOAKO BIDE BERDEA



44 Km.

### LOKALIZAZIOA LOCALIZACIÓN

Behobia, Irun (Gipuzkoa) eta Legasa Bertizarana (Nafarroa) artean.
*Entre Behobia, Irún (Gipuzkoa) y Legasa Bertizarana (Navarra).*

| | |
|---|---|
| ZORU-MOTA<br>TIPO DE FIRME | Asfaltoa - Lur trinkotua<br>Asfalto - Tierra Compactada |
| IBILBIDEA<br>ITINERARIO | BEHOBIA > BERA > LESAKA > SUNBILLA > LEGASA |

* Tarte batzuetako zailtasunekin / *Con dificultades en algunos tramos*
* Legasa - Berrizaun tartea (Igantzi Auzoa) / *De Lesaka a Berrizaun (Barrio de Igantzi)*
Sunbilla - Doneztebe tartea / *De Sunbilla a Doneztebe*
Doneztebe - Legasa tartea / *De Doneztebe a Legasa*

### Gipuzkoa eta Nafarroa elkartzen dituen bide berdea

Bidasoa ibaiaren ertzetik doa, Elizondo eta Irun elkartzen zituen meatze-trenaren trazadura zaharrari jarraituz. Gaur egun Bertizeraino iristen da natura-ingurune eder bat zeharkatuz, hainbat tunel eta udalerri igarota. Bidasoako Bide Berdeak paseo luzea eta atsegina ahalbidetzen du, bidea egiten duenak ia nabaritzen ez duen desnibel txikia baitu. Bidea egin ahala dikeak, Gerra Zibileko bunkerrak eta kiwi-sail bitxiak aurkituko ditu. Oso bitxiak dira, halaber, izokinek Bidasoa ibaiko oztopoak gainditzeko aprobetxatzen dituzten ibai-eskalak, trenbide zaharraren tarte horretara joanez gero ikustea merezi duen ikuskizuna.

Bide Berde hau gaur egun Eurovelo proiektuari atxikita dago, 8.000 kilometrotik gorako asmo handiko proiektua izanik.

### El camino verde que une Gipuzkoa y Navarra

*Discurre a lo largo del rio Bidasoa, siguiendo el antiguo trazado del tren de origen minero, que unía Elizondo con Irun. Actualmente llega hasta Bertiz por un bello entorno natural, pasando por túneles y poblaciones varias. La Vía Verde del Bidasoa posibilita un largo y agradable paseo con un desnivel prácticamente imperceptible para la persona que transita por ella. A lo largo del camino nos toparemos con diques de pequeño tamaño, bunkers de la Guerra Civil y curiosas plantaciones de kiwis. También debemos estar atentos a las escalas fluviales que son aprovechadas por los salmones para remontar el río Bidasoa, un espectáculo que merece la pena observar si acudimos a este tramo de vieja línea férrea.*

*Actualmente esta Vía Verde está adscrita al proyecto Eurovelo, un ambicioso proyecto de más de 8.000 kilómetros.*

### LEKU INTERESGARRIAK LUGARES DE INTERÉS

- Aiako Harria Parke Naturala / *Parque Natural Aiako Harria*
- Oiasso Erromatar Museoa / *Museo Romano Oiasso*

...



## *Plazaola-Leitzaran*
PLAZAOLA-LEITZARANGO BIDE BERDEA



45 Km.

### LOKALIZAZIOA LOCALIZACIÓN

Andoain (Gipuzkoa) eta Kaxarna (Nafarroa) bitartean.
*Entre Andoain (Gipuzkoa) y Kaxarna (Navarra).*

| | |
|---|---|
| ZORU-MOTA<br>TIPO DE FIRME | Asfaltoa - Lur trinkotua<br>Asfalto - Tierra Compactada |
| IBILBIDEA<br>ITINERARIO | ANDOAIN > LEITZA > LEKUMBERRI > LATASA > KAXARNA |

* Tarte batzuetako zailtasunekin / *Con dificultades en algunos tramos*
* Irristailuak. Hiri-tartea, Andoain. 4 km. / *Patines. Tramo urbano Andoain. 4 km.*

### Leitzaran bailararen bazterretan barrena

Gaur egun Bide Berdeak berreskuratu ahal izan dituen ia 45 kilometroak egin daitezke. Pedalei eraginez edo oinez modu erosoan Andoain (Gipuzkoa) eta Lekunberri (Nafarroa) elkartzen dituzten 45 kilometro dira. Ibilbideak oso paraje ederrak eta ingurumen-balio handikoak zeharkatzeko aukera ematen digu, adibidez Larraun eta Leitzarango haranak, azken hori Biotopo Babestua izanik. Gainera, bide horrek Uitziko tunelean sartzeko aukera ematen digu, Espainiako Bide berdeetako tunelik luzeena izanik, behar bezala egokitutako 2,7 kilometro dituena. Ibilbidearen beste protagonista bat ura da, Leitzaran ibaia euskal lurraldean egingo ditugun kilometro askotan bidaialagun izango baitugu.

### Por los rincones del Valle de Leitzaran

*Hoy en día se puede recorrer los casi 45 kilómetros que la Vía Verde ha podido salvaguardar. Son los que unen, en un tranquilo pedalear o caminar, las localidades de Andoain (Gipuzkoa) y Lekunberri (Navarra). El itinerario nos permite cruzar parajes de gran belleza y valor medioambiental, como por ejemplo los valles de Larráun y Leitzaran, este último declarado Biotopo Protegido. Además, esta vía nos brinda la oportunidad de adentrarnos en el túnel de Uitzi, el más largo de las Vías Verdes españolas, con sus 2,7 kilómetros perfectamente acondicionados. El agua es otro elemento protagonista de la ruta, ya que el río Leitzaran nos acompañará en gran parte de los kilómetros que recorramos por tierras vascas.*

### LEKU INTERESGARRIAK LUGARES DE INTERÉS

- Leitzarango Biotopo Babestua / *Biotopo Protegido de Leitzaran*

...

## *Urola*
UROLAKO BIDE BERDEA



22,5 Km.

### LOKALIZAZIOA LOCALIZACIÓN

Azpeitia eta Legazpia (Gipuzkoa) bitartean.
*Entre Azpeitia y Legazpi (Gipuzkoa).*

| | |
|---|---|
| ZORU-MOTA<br>TIPO DE FIRME | Asfaltoa - Lur trinkotua<br>Asfalto - Tierra Compactada |
| IBILBIDEA<br>ITINERARIO | AZPEITIA > LOIOLA > AZKOITIA > AIZPURRUTXO > URRETXU > ZUMÁRRAGA > LEGAZPI |

* Irristailuak. Azkoitia-Azpeitia tartean / *Patines. Tramo Azkoitia-Azpeitia*

### Urolako trenbide zaharrari jarraituz

Bide Berde honek ibilbide ikusgarria eskaintzen du, interesgune askorekin. Gutxienez 40 zubi eta 19 tunel ikus daitezke, denak argiztapen onarekin. Interes handiena duten guneak hainbat leku enblematiko dira, adibidez Loiolako Santutegia edo Burdinbidearen Euskal Museoa. Proposamenik onena zeharkaldia Zumarragan hastea eta Azpeitiko tren-geltokian amaitzea da, bertan baitago Burdinbidearen Euskal Museoa. Plan egokia da kirola maite dutenentzat nahiz haurrak dituzten familientzat, natura, kirola eta kultura uztartzen dituena.

### Siguiendo al antiguo ferrocarril del Urola

*Esta Vía Verde ofrece un recorrido espectacular con numerosos puntos de interés. Se puede contemplar al menos 40 puentes y 19 túneles, todos ellos iluminados. Los puntos de mayor interés se concentran en lugares tan emblemáticas como el Santuario de Loiola o el Museo Vasco del Ferrocarril. La mejor propuesta es la de comenzar la travesía en Zumárraga y finalizar en la estación de tren de Azpeitia, que hoy en día alberga el Museo Vasco del Ferrocarril. Un plan apto tanto para amantes del deporte como para familias con niños, que conjuga el disfrute de la naturaleza, el deporte y la cultura.*

### LEKU INTERESGARRIAK LUGARES DE INTERÉS

- Loiolako Santutegia / *Santuario de Loiola*
- Mirandaolako Burdinola / *Ferrería de Mirandaola Legazpia*
- Euskal Burdinaren Museoa / *Museo del Hierro Vasco (Legazpi)*
- Chillida Lantoki / *Espacio Chillida (Legazpi)*
- Andre Mariaren eliza (Antioko baseliza) / *Ermita Santa María de Zumarraga (La Antigua)*

...

## *Arrazola*
ARRAZOLAKO BIDE BERDEA



5 Km.

### LOKALIZAZIOA LOCALIZACIÓN

Apatamonasterio eta Errotaberri-El Topeko geltoki zaharraren (Atxondo) artean, Bizkaian.
*Entre Apatamonasterio y la antigua estación de Errotabarri-El Tope (Atxondo), Bizkaia.*

| | |
|---|---|
| ZORU-MOTA<br>TIPO DE FIRME | Lur trinkotua<br>Tierra Compactada |
| IBILBIDEA<br>ITINERARIO | APATAMONASTERIO > MARZANA > Bº DE ARRAZOLA > ESTACIÓN DE ERROTABARRI |

### Ezagutu ezazu Atxondoko haranaren xarma

5 kilometroko luzera duen bidea da, malda txikikoa eta baserriz, paisaia ikusgarriz edo baselizez inguratua, eta Atxondoko haranaren bazterrik adierazgarrienak ezagutzeko aukera ematen du; hori guztia Anboto mendi ikusgarriaren begirada zorrotza gainean dugula.

### Descubre el encanto del valle de Atxondo

*Se trata de un camino de 5 kilómetros de longitud con poca pendiente y rodeado de caseríos, espectaculares paisajes o ermitas, y que ofrece la oportunidad de conocer los rincones más representativos del valle de Atxondo; todo ello bajo la atenta mirada del espectacular monte Anboto.*

## *Mutiloa-Ormaiztegi*
MUTILOA-ORMAIZTEGI BIDE BERDEA



6,7 Km.

### LOKALIZAZIOA LOCALIZACIÓN

Barnaola baserriaren (Mutiloa) eta Lointziko mendi-hegalaren (Ormaiztegi) artean, Gipuzkoan.
*Entre el caserío Barnaola (Mutiloa) y la ladera de Lointzi (Ormaiztegi), Gipuzkoa.*

| | |
|---|---|
| ZORU-MOTA<br>TIPO DE FIRME | Lur trinkotua<br>Tierra Compactada |
| IBILBIDEA<br>ITINERARIO | ORMAIZTEGI > MUTILOA > ORMAIZTEGI<br>4,2 km + 1,9 km Camino de Troi (Mutiloa) + 0,6 km Camino de Lointzi (Ormaiztegi) |

### Goierri, burdinari oso lotuta

Mutiloako Bide Berdea baso ikusgarri eta limurtzaileen artean igarotzen da, meatze-trenbidearen trazadura zaharrean barrena, Ormaiztegiko udalerri gipuzkoarretik Barnaola baserrira arte, Goierriko eskualdean. Paseo ederra da, erraz egin daitekeena, eta horren bitartez bisitariak euskal bazter hori modelatu zuen meatze-historia ezagutu ahal izango du.

### Goierri, muy ligada al hierro

*La Vía Verde de Mutiloa discurre entre magníficos y envolventes bosques por el antiguo trazado del ferrocarril minero, desde la población gipuzkoana de Ormaiztegi hasta el caserío Barnaola, en la comarca de Goierri. Es un hermoso paseo fácil de recorrer, a través del cual, el visitante podrá conocer la historia minera que modeló este rincón vasco.*

## *Arditurri*
ARDITURRIKO BIDE BERDEA



12/11,2 Km.

### LOKALIZAZIOA LOCALIZACIÓN

Pasai Antxo edo Lezo eta Arditurriko meatze-esparruaren (Oiartzun) artean, Gipuzkoan.
*Entre Pasai Antxo o Lezo y el Coto Minero de Arditurri (Oiartzun), Gipuzkoa.*

| | |
|---|---|
| ZORU-MOTA<br>TIPO DE FIRME | Asfaltoa. Bide lauzatua. Bidegorria<br>Asfalto. Tramo enlosado. Carril Bici |
| IBILBIDEA<br>ITINERARIO | PASAI ANTXO / LEZO > COTO MINERO DE ARDITURRI, OIARTZUN (AIAKO HARRIA PARKE NATURALA) |

### Natura bizi-bizia

Komunikazio-bide historiko honek Pasaiako badia eta Aiako Harriko Parke Naturala elkartzen zituen. Trenbidea 1901ean egin zuten eta 1966. urtera arte funtzionatu zuen. Ibilbide harrigarri horretan inguru horretako ondarearen hainbat aztarna ikusiko ditugu: errotak, dorretxeak, galeriak, meategi-sarrerak, aireztapen-putzuak, karea egiteko labeak eta abar.

### Naturaleza en estado puro

*Esta histórica vía de comunicación unía la bahía de Pasaia con las minas del Parque Natural de Aiako Harria. El tren fue construido en 1901 y se mantuvo en funcionamiento hasta 1966. En el insólito recorrido encontraremos numerosos vestigios del patrimonio de la zona: molinos, casas-torre, galerías, bocas de mina, pozos de ventilación, hornos caleros.*

## *Atxuri*
ATXURIKO BIDE BERDEA



3,8 Km.

### LOKALIZAZIOA LOCALIZACIÓN

Mungiaren eta Artebakarra mendiko inguruaren artean. Bizkaia.
*Entre Mungia y las estribaciones del monte Artebakarra. Bizkaia.*

| | |
|---|---|
| ZORU-MOTA<br>TIPO DE FIRME | Asfaltoa<br>Asfalto |
| IBILBIDEA<br>ITINERARIO | PARQUE URIGÜEN > CASERÍO LANDETXO GOIKOA–IZENADUBA BASOA > Bº ATXURI > Bº ZABALONDO > Bº LAUKARIZ |

### Paseo atsegin bat Mungian barrena

4 kilometro eskas dituen Bide Berde erraz honek noiz bisitatuko duzun unea erabakitzea bakarrik eskatuko dizu. Uriguen parketik hasita, LandetxoGoikoa baserriaren inguruan, mendebalderantz joango gara, Bide Berderantz, zeinaren lehen metroak GR 280 Uribe bidearekin bat datozen.

### Un apacible paseo por Mungia

*La sencillez de esta Vía Verde de apenas 4 kilómetros de longitud solo te va a exigir elegir el momento idóneo para recorrerla. Comenzando en el parque Uriguen, cerca del caserío Landetxo Goikoa, nos dirigimos hacia el oeste, hacia la Vía Verde, cuyos primeros metros comparten camino con el GR 280 Uribe. El entorno lleno de árboles y praderas hace más hermoso el paseo, si cabe.*




www.euskaditurismo.eus

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

# *Bide Berdeak*
VÍAS VERDES

| | |
|---|---|
| FC VASCO NAVARRO | 85 Km. |
| MTES. DEL HIERRO/ITSASLUR | 42 Km. |
| BIDASOA | 44 Km. |
| PLAZAOLA-LEITZARAN | 45 Km. |
| UROLA | 22,5 Km. |
| ARRAZOLA | 5 Km. |
| MUTILOA-ORMAIZTEGI | 6,7 Km. |
| ARDITURRI | 12/11,2 Km. |
| ATXURI | 3,8 Km. |

# *Natura-turismoa Euskadin*
TURISMO DE NATURALEZA EN EUSKADI




Ezinbesteko 10ak
Los 10 imprescindibles de Euskadi




www.euskaditurismo.eus

Asko dira Euskadi ezinbesteko jomuga bihurtzen duten arrazoiak. Berehala konturatuko zara bertako jendea eta historia ezagutzen duzunean, hiriek arnasten duten ondarea ikustean, eta, harik eta hobeto, mahai on baten inguruan iruzkintzen duzunean.

Son muchos los motivos que hacen de Euskadi un destino imprescindible. Lo vas a comprobar cuando conozcas su gente, su historia y su rico y variado patrimonio y aún mejor cuando lo comentes en torno a una buena mesa.







# *Erabilpen gomendioak*
RECOMENDACIONES DE USO

1 Errespeta itzazu ingurumena, inguruko herritarrak eta animaliak.
*Respeta el medio ambiente, la población del entorno y los animales.*

2 Gozatu naturaz zaratarik eta presarik gabe.
*Disfruta de la naturaleza sin ruidos y sin prisa.*

3 Ibili arreta handiz ibilgailuekin partekatzen diren tarteetan.
*Circula con precaución en aquellos tramos que sean compartidos con vehículos.*

4 Errespeta itzazu zirkulazio-arau orokorrak.
*Respeta las normas generales de la circulación.*

5 Kontu handiz ibili, batez ere tunelak eta bidezubiak zeharkatzerakoan.
*Mantén la precaución, especialmente en travesías de túneles y viaductos.*

6 Linterna eraman ezazu tunelak dituzten tarteetan.
*Lleva linterna en los tramos donde existen túneles.*

7 Bizikletaz bazoaz, erabili beti kaskoa.
*Si vas en bici, utiliza siempre el casco.*



# *Informazio puntuak*
PUNTOS DE INFORMACIÓN

▶ Antzinako Vasco-Navarro Trenaren Ibilbidea Berdearen Interpretazio Zentroa Centro de Interpretación del Antiguo Ferrocarril Vasco-Navarro
Antoñana, Ctra. Estella (Araba-Álava)
945 410 577 @ info@montanaalavesa.com

▶ Bidasoa Interpretazio Zentroa Centro de Interpretación del Bidasoa
Santiago Zubiaren ondoan, Irún (Gipuzkoa) / *Junto al puente de Santiago, Irún (Gipuzkoa)*
943 505 826 @ consorcio@bidasoa-activa.com

▶ Leitzaran Bisitaren Etxea Casa del Visitante de Leitzaran
Otieta Parkea, Leizotz auzoa, 48 behea 20140 Andoain (Gipuzkoa)
943 300 929 @ info@leitzaran.org

▶ Arditurriko Interpretazio Zentroa-Parketxea (Aiako-Harria Parke Naturala) Centro de interpretación-Parketxe de las Minas de Arditurri (Parque Natural Aiako Harria)
Bide berdearen amaieran. Arditurri / *Al final de la Vía Verde. Arditurri (Gipuzkoa)*
943 494 521 @ arditurri@arditurri.com
*www.arditurri.com*

▶ Burdinbidearen Euskal Museoa Museo Vasco del Ferrocarril
C/ Julián Elorza, 8. 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
943 150 677 @ comunicacion@euskotren.es
*www.bemfundazioa.org*

www.euskaditurismo.eus